

PLATAFORMA KOOPERATIBAK ORAIN! IKASTAROA

GAIA Estrategia, Ekintzailetasuna eta Berrikuntza
Kontabilitatea eta Finantzak
Enpresa eta Erakundeen Zuzendaritza eta Kudeaketa
Kooperatibismo eta Gizarte Ekonomia

ECTS/ORDUAK 66 ORDU

EGUTEGIA 2023/04/14 - 2023/06/19

TOKIA **HIZKUNTZA** Gaztelania

MODALITATEA Online

Informazio gehiago
eta izen-ematea

AURKEZPENA

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK



Plataforma kooperatiboak ORAIN!

Gizateriaren zerbitzura jarritako eraldaketa digitala. Plataforma kooperatibo digitalak, hau errealitate bihurtzeko alternatiba.

Aurreko edizioetan...

Laugarren Edizioa

Plataforma kooperatibo digitalen garapena eta mundu mailako komunitatea sortzea helburu duen online kurtsoa.

+1.100

PARTAIDE

300	63	49
EKIMEN	HERRIALDE	TOKIKO KOLABORATZAILE

⊕ Eman izena laugarren edizioan > short.gy/IH6ZzC
Informazioa eta zalantzak > platformcoops@mondragon.edu

Mundu mailako kolaboratzaileak:



Tokiko kolaboratzaileak:



HELBURUAK

PLATFORM COOPS NOW! ala PLATAFORMA KOOPERATIBOAK ORAIN! 2020 urtean The New Schoolen ekonomia digital kooperatiboko institutuaren, Mondragon Team Academy - Mondragon Unibertsitatearen eta Mondragon Korporazioaren (Euskal Herria) arteko elkarlanaren bitartez jaiotako programa bat da. Mundu mailako komunitate, plataforma kooperatibo digital berrien sorrera eta talde ekintzailtza sustatzen duen gaitze programa da zehazki. Programa honen helburua, besteak beste, plataforma kooperatiboek sortzen dituzten aukeren inguruan kontzientzia zabaltzea eta hauen sorrera sustatzeko formakuntza ematea da.

“Big tech” ala enpresa teknologiko erraldioen kontzentrazioa inoiz baino handiago den honetan, kurtso hau ez da kapitalismoaren kontrol eta azterketara mugatu nahi. Esponentziala den gig ekonomiako ekosisteman arrakasta lortzeko formatzen ditu pertsonak kurtso honek. Partaideei estrategia berritzaileetan oinarritutako eta jabetza kooperatiboa duten liderren belaunaldia ezagutu eta honen parte izaten laguntzen du. Imajina dezagun gidarien esku dagoen Uber antzeko kooperatiba bat ala erabiltzaileen esku gelditzen den Twitter plataforma. Ekonomia partekatutik benetako ekonomia partehartzaile bateranzko jauziaz ari gara. Jabetza partekatu eta demokratikoa duen ekonomia posible da.

NORI ZUZENDUA

Kurtso hau honakoentzat bideratuta/diseinatuta dago:

- gobernantza parte-hartzailea eta demokratikoa mundu digitalera nola lekualdatu jakin nahi duten horientzat
- dagoeneko kooperatiba batean lanean ari eta plataforma kooperatiborantz trantsizioa egiten ari direnentzat
- lan eredu eta ekosistemako harreman eredu duinez gain plataforma digitalaren jabetza eta gobernantza formatu digitalean garatu nahi duten horientzat
- politikaren arloan aritzen diren ala kargu publiko/instituzionalak, akademikoak ala aktiboki plataforma kooperatibo digital baten sorreran parte hartzen ari ez den ororentzat (ikerketa bidea)
- langabe dauden eta lan duinak bilatzen dituzten horientzat, zerbitzuen arloan bereziki
- Mondragon Unibertsitate / Mondragon Team Academy-k garatutako talde ekintzaitza programa erradikalaren esperientzia bizi nahi duten haientzat

PROGRAMA

Kurtsoa **bi zatitan** banatuta dago. Lehenengo zatiak 4 asteko iraupena izango du eta era asinkrono eta digitalean emango da. Honako sesioetaz osatuta dago:

- Sesioa: Plataforma eta gig ekonomiari sarrera
- Sesioa: Kooperatibaren barne abantaila / Mondragon esperientzia
- Sesioa: Solidaritatea zabaltzen/eskalatzen: Plataforma kooperatibak
- Sesioa: Kasu azterketak

Bigarren zatiari dagokionez, bi ibilbideetaz osatuta egongo da eta 10 asteko iraupena izango du.

1. Ibilbidea – Ikerketari bideratuta (ingelesez soilik):

Politikaren arloan aritzen diren ala kargu publiko/instituzionalak, akademikoak ala aktiboki plataforma kooperatibo digital baten sorreran parte hartzen ari ez den ororentzat dago bideratuta. Ikerketa saila ingelesez izango da eta Trebor Sholz-ek antolatu eta kudeatuko du.

1. Ibilbidea – Praktikoa ala ekintzaitzara bideratuta:

Kurtso hau guztiz autonomoa da, beraz ez du jarraipen pertsonalik izango antolatzaileen eskutik. Lekuko bazkideekin harremanetan jartzeko aukera dago hauek lekuko jarraipen zehatzago bat eman nahi duten erabaki dezaten. Dena den, estatu espainolean asteroko jarraipena bermatuta dago lekuko bazkideekin dei online baten bitartez.

- Sesioa: Bigarren zatira sarrera
- Sesioa: Taldearen sorrera

- Sesioa: Egitura kooperatiboa eta gobernantza eredua
- Sesioa: Beharra, aukerak eta merkatu ideia
- Sesioa: Diseinu-pentsamendua eta produktu minimo baliagarria
- Sesioa: Bezeroaren baieztatzea
- Sesioa: Plataforma kooperatibo digitalen negozio ereduaren sorkuntza
- Sesioa: Teknologia esparrua
- Sesioa: Finantzak eta arlo legala
- Sesioa: Proiektu aurkezpenak
- Sesioa: Itxiera

KOLABORATZAILEAK/ BABESLEAK

EAES: Escuela Andaluza de Economía Social

Ekonomia sozial eta solidariako antolakuntza. Enpresei bere printzipio eta balio kooperatiboekin bat datorren kudeaketa eredu bat sortzen laguntzen die, pertsona erdigunean jarrita eta iraunkortasun ekonomikoa ahaztu gabe. <https://escueladeeconomiasocial.es/>

ESPAZOCOOP: Unión de Cooperativas Galegas

Galiziako kooperatibismoan eta ekonomia sozial eta solidarioaren arloan erreferente izateko aspirazioa duen entitatea da Espazocoop, balio eta printzipio kooperatiboak bermatuz. <https://espazo.coop/>

FLORIDA UNIVERSITARIA:

Florida Unibertsitatea, Universidad de Valenciako, Universidad Politécnica de Valenciako eta Mondragon Unibertsitateko gradu eta ikasketa ziklo ezberdinen eskaintza zabala duen goi mailako hezkuntza zentro bat da. Florida Grup Educatiu markaren parte da, irakaskuntzaren munduan 40 urte daramazkin proiektu bat. <https://www.floridauniversitaria.es/>

MONDRAGON

1956an sortu zen enpresa errealitate kooperatibo baten emaitza da MONDRAGON. MONDRAGONen filosofia jasota dago haren balio korporatiboetan: elkarrekiko lankidetzeta, kudeaketan parte hartzea, gizarte erantzukizuna, berrikuntza, antolaketa demokratikoa, hezkuntza eta gizarte eraldaketa, besteak beste.

Antolaketari dagokionez, MONDRAGON lau arloren inguruan egituratzen da: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza. Gaur egun 96 kooperatiba autonomo eta independentek, 81.000tik gora pertsonak eta I+Gko 14 zentrok osatzen dute MONDRAGON. Hala, Euskadiko lehen enpresa taldea eta Espainiako hamargarrena da. <https://www.mondragon-corporation.com/>

MONDRAGON UNIBERTSITATEA - MONDRAGON TEAM ACADEMY

Mondragon Unibertsitatean gizartea eraldatzeko konpromisoa duen unibertsitatea da; eta konpromiso hori euskarri duen partaidetza-ereduan islatzen da.

Unibertsitatea kooperatiboa da, MONDRAGON Korporazioa enpresa-multzoko kidea. Alde horretatik, inguruarekin, gizartearekin eta gure garaiarekin inplikaturik dago; beraz, bokazio humanista du.

Honen formazio-ereduaren oinarria hezkuntza-sistema da, baina enpresak eta erakundeak inplikaturik dute, gizarte-eskuragarritasuna, ikasketen eta lanaren bateragarritasuna, ikerkuntza eta transferentziaren garapena eta etengabeko prestakuntza bermatzeko.

Mondragon Team Academy (MTA) 2008 urtean Mondragon Unibertsitatearen barnean sortutako ekintzailetza saila da. MONDRAGONen jatorrizko ekintzailetza arima berreskuratzea du helburu. 2009. urtean lehen ekintzailetza gradua sortu zen (LEINN) eta honekin batera sortutako oinarriak eta ikasketak Platformcoops Orain! sortzeko erabili dira.

TZBZ

TZBZ mundua aldatzeko eta pertsonak transformatzeko helburua duten gazte berritzaile eta ekintzaileetaz osatuta dago. Produktuak, zerbitzuak, markak eta erakundeak estrategikoki diseinatzen dituzte. Bisio multilokalizatu batekin eragin positiboa sortzen duten pertsona erdigunean jartzen dituzten proiektuak sortuz. <https://tzbz.coop/es/en/>

BESTE KIDEAK/BAZKIDEAK

[Confecoop \(Colombia\)](#)

[Cooperative College \(UK\)](#)

[Cooperative Support Service \(Nigeria\)](#)

[CoopTech \(Poland\)](#)

[Cudecoop \(Uruguay\)](#)

[Écosystème Pour les Plateformes Collaboratives Collectives \(Canada\)](#)

[Escuela Andaluza de Economía Social \(Spain\)](#)

[Espazocoop - Unión de Cooperativas Galegas \(Spain\)](#)

[Factic \(Argentina\)](#)

[Florida Universitaria \(Spain\)](#)

[Gapatma - Demokrasi Ekonomi \(Indonesia\)](#)

[I TRES COOP \(Peru\)](#)

[Ibero Puebla \(Mexico\)](#)

[Incubator.Coop \(Australia\)](#)

[Industree \(India\)](#)

[Institut Mines - Télécom \(France\)](#)

[Legacoop Liguria \(Italy\)](#)

[LSP2i - Institute for Indonesian Co-operative Development Studies \(Indonesia\)](#)

[Plateformes en Communs \(France\)](#)

[Platform Co-ops Germany \(Germany\)](#)

[Red Root Artists Cooperative \(Philippines\)](#)

[Start.coop \(USA\)](#)

[Sulá Batsú \(Costa Rica\)](#)

[Unidad de Innovación Social de Navarra \(Spain\)](#)

[Universidad Cooperativa de Colombia \(Colombia\)](#)

[Universidad Fundepos \(Costa Rica\)](#)

[Universidade do Paraná \(Brasil\)](#)

[Usach \(Chile\)](#)

[Zuhura Innovations Africa \(Kenya\)](#)

PREZIOA

Programa honen helburua ahalik eta irisgarritasun handiena izatea da. Hau horrela izanik, honako prezioak ezarri dira (Nazio Batuek sortutako Giza Garapenaren Indizearen arabera):

Giza garapen oso handiko herrialdeentzat*, prezioa 150 eurokoa da.

Garapen bidean dauden herrialdeentzat*, prezioa 40 eurokoa da.

Ordainbideak:

Espainiako Estatuko parte-hartzaileentzat, ordainketa banku-transferentzia baten bidez egin behar da:

Laboral Kutxa: ES45 3035 0005 3600 5000 6915

Beste herrialde batzuetako partaileentzat Flywire bidez egingo da transferentzia: [esteka](#)

* [Giza Garapenaren Indizearen zerrenda](#)

Ikastaroa egin nahi izan eta zailtasun ekonomikoak izanez gero, jarri harremanetan:

platformcoops@mondragon.edu

Ordainketa/Inskripzioa:

Ordainketa sistemari buruzko edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan: Mireia Igarzabal:

migarzabal@mondragon.edu

INFORMAZIO GEHIAGO

Informazio gehiagorako:

[FAQ](#)

email: platformcoops@mondragon.edu

